

ITSUARENA

Ipuina kontatu nahi ta ez jakin ba nondik hasi
Koplaka edo bertsotan nahi nuke adierazi
Hau duzu auzo bateko egiazko historia
Bi emakume euskaldun haurdunen joanetorria.

Etixerik ez duen amak haurra ekarri mundura
Auzoko emakumeen laguntza eta ardura
Negu hotzaren erdian lagunak berotasunak
Kantuak bihurtu lehen negarraren oihartzunak.

Jauregiko emaztea gaisorik dago ohean
—Etzanda, etzanda, tristurak jota han da—
Mantal zuriko neskame lau ditu aldameneari
—Neskame, neskame, inguruan lau eme—
Senarrak ez du gogoko umekiaren sexua
—Senarra, senarra, txotxoloa den arra—
Ginekologoak eta ekografiaz kexu da.

Setati emazteari agindu abortatzeko
—Agindu, agindu, besterik ezin baitu—
Eta haurdunaldiaren arrastoak estaltzeko
—Estali, estali, ahal duena kiskali—
Londreseko klinikara doa hegazkinez bakarrik
—Bakarrik, bakarrik, ez baitu behar arrik—
Urrezko visa txartelak ez du besteren beharrik

Urrezko: urrezko txartelaz bertan abortatzeko.

Auzoko haurra koskortzen lauazka hazten doana
—Badoa, badoa hazten gizarajoa—
Auzo osoa beretzat etxea, aita ta ama
—Berea, berea orain arteko dema
Jauregiko leiho atek gakoak ta trankaz itxirik
—Itxirik, itxirik, ez baitute argirik
Bertako zakurrak badu berak ez dun janaririk

Jauregiko emazteak pikura eta pastila
—Pastila, pastila, lasai bizi dadila—
Esteriletaz bizi da, esteriletaz da hila
—Bizi da, bizi da, besteari begira
Ipuin honen sortzailea itsua den kantaria
—Kantari, kantari ikusten duen hori
Ikusten baitu auzoan euskaldun egunkaria


Itsuak: euskal egunkari, euskal egunkaria

PRIMA GAIZTOA

Prima gaiztoak
Prima eijerra kolpatu
Eltzegorriari
Bortizki atakatu
Seikoa bostean
Errotik bat kenduz
Zanpatuz, irainduz
Abots sakonena
Gugandik aldenduz

Juantxo maitea
Gogorra hire hutsa
Gogorragoa
Presondegi kutxa
Gaua duk zorrotza
Eguna kamutsa
Tolare bat gela
Xehetuz zapal dezan
Presoen gorputza

Eskura ezin
Liteken hegaztia
Ihes joan da
Denbora guztia
Sei horma artera
Bortxaturik bera
Bizirik kondena
Mutu-gor-itsuen
Erresumetara



AITONA

Aitona nuen bertsolaria
Ta egona naiz sarri askotan
Bertso kantuak koplak ikasiz
Haurra nintzela bere besotan

Hirurogeita hamar bat kilo
Metro bat hirurogei alturan
Buru soiltsua txapelaz jantzi
Eta beltzaran bere itxuran

Lehen pausoak bere eskutik
Turrunkunttunkun arin eginez
Errikotxia baserri izenez
Eta uztargilea lanbidez


Goizalderako pago oso bat
Herriko plazan bertan jarria
Arratserako artista batek
Bezalaxe landu uztarria

Elebakarra beraz erdarak
Inolaz ere ezin jarraitu
Ni berriz erdal eskolan hezi
Ta erabat erdaldun gelditu

Ni gazteleraz mintzo nintzaion
Normala zenez, ezin harritu
Zer zoriona berak bertsook
Ni kantari entzungo balitu

Eskerrak eman behar dizkizut
Aitona eta egin dut hola
Musika eta kantua dauzkat
Bizitzeko kemen ta odola

Zu izan zinen irakaslea
Ta Oiartzungo baserri-etxola
Bonatxo zena urte haietan
Neretzat benetako eskola



GELTOKIAN

Hendaia ta Donibane, Baiona, Austerlitz
Bidaia ezberhartu oro irriz
Hendaia ta Donibane, Baiona, Austerlitz
Bidaia hori behartuta ez balitz...

Frantziak han du
Laguna preso
Sei metro karratutan
Leihoari so

Burnizko irri
Zurezko negar
Sei hormetako gelan
Itxita bakar...
Itxita bakar

Hendaia ta...

Musikaz hitzak
Nahasirik datoz
Doinua armonia

Ritmoa bertsoz
Notak saltoka
Lerro artean
Nork egituratuko
Zain bitartean...
Zain bitartean

Hendaia ta...

Zatiak josi
Kantua osa
Lagunak entzun dezan
Lagunen hotsa

Bakardadeak
Eragin suak
Erre ditzala bertan
Su egileak...
Su egileak

HERRIALDE BERDEA

Aitona esaidazu nora doan zure laguna
Aitona nondik ezagutzen duzu zure laguna
Zein da bere izena
Non da bere etxea
Zergatikan bizi da beldurrez gure etxean

Orain ez asko gure Herria huen guztiz berdea
Gure aiton-amonon Herria huen guztiz berdea
Horiz tintatu nahirik heldu ziren kanpotik
Horizaleek barnetik landu zuten gogotik

Horizaleak ugariak ziren eta azkarrak
Mendiz, itsasoz ta airez armaturik
Indarrez sartu etxeetan
Batzuek aldegin gauez ta besteak
Preso oraindik bertan

Aitona nola lagunduko dugu zure laguna
Bere etxera egunez joan dadin zure laguna
Herriaren berdea lehen bezala ordea
Jarriko dugu gauez, behar bada indarrez

Presoak libre eta kantuz dantzatzen Herri berdean

Horiak gorrota, gure etxetik bota
Mendiz, airez ta itsasoz
Gure lagunaren etxe inguruan
Berdezale guztiok...

Aitona esaidazu nora doan gure laguna



IHARRA-REN IZKRIBUA
XANKI-REN IRUDIAK

HERRIALDE BERDEA



KRISTOF-MADDI

Ohartzen dut, ezin ahantz, hi ezagutu hindudanekoa
Bi gaitaz jo, Txapelari, Txomin ta Ramuntxori egina
Hi, txistulari, hi gaita jole,
Kirolzale, euskaltzale, abertzale...

Nafarroa, Lapurdi, Heleta ta Baigorri (biz)
Oihuka Kristof-Maddi (biz)

Afitxaren irudia itatsirik dago gure gogoan
Kantuaren bidez gure etsipena bihurtu kemena
Har atsedena, sor bizi nahia
Ta kuraia, bizi-nahia, ta kemena...

Nafarroa, Lapurdi, Heleta ta Baigorri (biz)
Oihuka Kristof-Maddi (biz)

OBOEAREN MUGAN

Parpen horman zintzilik
Baztertuta isilik
Bizi nadin arnasa
Nahiz ta falta
Bizirik

Horma artean ez baita
Enterratzen a'l gaita
Ta oboez pitzaraz
Harri, burdin,
Zimenta

Ezti ezazu nere soinua
Itsasalderuntz lagunduz noa
Nafarroaren oihu bortitza
Lehertuko da zure doinuan

Otoi, eman iezaadak arnas
Eta busti hire hatsaz
Pipiak ez nazan
Bilakarazi errauts

Pitzaduren artetik
Hatsa eman dit Bettik
Dantzan dabiltz behatzak
Sei zuloen
Gainetik

Ezti ezazu nere soinua
Itsasalderuntz lagunduz noa
Nafarroaren oihu bortitza
Lehertuko da zure doinuan

ARTE-ANTTON

Ibargurenetik begira
Hiritik datorren argira
Pinudiak ilunak dira
Arte, Antton

Zorrotz da bizitzaren zerra
Zuhaitz zaharraren gainbehera
Sustraia jaten digun gerra
Ametz, Antton

Harkaitzetaraino bultzaka
Arrotzak gakartza indarka
Harri artetik ezin aska
Hagin, Antton

Udaberrian ezin lora
Udazkenik ez dun arbola
Kondenatu gaitu zokora
Ezki, Antton

Geuk landatuak behartuta
Bizi beharrak presa du-ta
Azkarra omen zuen uzta
Gaztain, Antton

Biztu zen ta ezin itzali
Zortea garrez-irriz ari

Pinuen sutan gu kiskali
Gurpitz, Antton

Iharturik ere barruak
Arbolaren azken orruak
Bizi nahiaren amorruak
Zumar, Antton

Oihaneke lagun onenak
Lehenbizi erori zirenak
Ez ahantzi haien izenak
Ezpel, Antton

Gorrotatuz zorte traketsa
Penditzetan dugu babesia
Ibarra erronka ametsa
Arte, Antton

